

@@@EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 30ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, diru-laguntzak ematen zaizkie Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Planeko prestakuntza-ikastaroak gainditu dituzten irakasleei (2010-2011).@@@

2010eko apirilaren 27ko Aginduak Garatu Planaren 2010-2011 deialdia arautzen du, eta prestakuntza-ikastaroak gainditzen dituzten irakasleei diru-laguntzak emateko irizpideak ezartzen ditu (2010-05-13ko EHAA).

Amaitutako ikastaroen aktak jaso eta irakasleen laguntza-eskabideak aztertu ostean, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- I. eranskinean adierazten diren irakasleei diru-laguntzak ematea. Eranskinean bertan zehazten dira zenbatekoak.

2. artikulua.- II. eranskinean adierazten diren irakasleek aurkeztutako eskaerak atzera botatzea, kasuan kasuko arrazoiak direla-eta.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 30a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
CÁNDIDO HERNÁNDEZ GARDUÑO.